



DIARIO DE SESIONES
DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA

IX Legislatura

Pamplona, 23 de febrero de 2016

NÚM. 7

TRANSCRIPCIÓN LITERAL

**COMISIÓN DE RELACIONES CIUDADANAS E
INSTITUCIONALES**

PRESIDENCIA DE LA ILMA. SRA. D^a. M^a TERESA SÁEZ BARRAO

SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 23 DE FEBRERO DE 2016

ORDEN DEL DÍA:

— Comparecencia, a instancia de la Junta de Portavoces, del Director-Gerente del Instituto Navarro del Euskera/Euskarabidea para informar sobre los pasos realizados en relación con la política lingüística del Gobierno de Navarra recogida en el acuerdo programático firmado por las fuerzas políticas que sustentan el Gobierno.

(Comienza la sesión a las 16 horas y 30 minutos.)

Comparecencia, a instancia de la Junta de Portavoces, del Director-Gerente del Instituto Navarro del Euskera/Euskarabidea para informar sobre los pasos realizados en relación con la política lingüística del Gobierno de Navarra recogida en el acuerdo programático firmado por las fuerzas políticas que sustentan el Gobierno.

SRA. PRESIDENTA (Sra. Sáez Barrao): Arratsalde on, hasiko gara.

Buenas tardes, y vamos a empezar esta sesión de trabajo que es la comparecencia del director gerente del Instituto Navarro del Euskera/Euskarabidea para informar sobre los pasos realizados en relación con la política lingüística del Gobierno de Navarra recogida en el acuerdo programático firmado por las fuerzas políticas que sustentan el Gobierno.

Esta sesión de trabajo ha sido solicitada por EH Bildu Nafarroa, y bueno, pues, les voy a decir, que están acompañándonos, efectivamente, el director gerente, Mikel Aregi, pero además, están también sentados, Mikel Etxegarai (a ver si lo digo bien, ¿eh?), Ander Irizar, que lo veo por allá, y Paula Casares. Entonces, le doy la palabra al representante de EH Bildu.

SR. ANAUT PEÑA (1): Bueno, arratsalde on. Eskerrik asko etorri zareten Euskarabideako ordezkarietara eta Mikeli ere bai.

[Bueno, buenas tardes. Gracias a los representantes de Euskarabidea que han venido, y bueno, gracias también a Mikel.]

Aldaketa gertatu zen Nafarroan orain dela hilabete batzuk, aldaketa politiko eta instituzionala. Euskara izan zen aldaketa hori bultzatu zuten arrazoietako bat eta, gainera, esango nuke, bada, arrazoi nagusietako bat. Jende askok aldaketa hori bultzatu zuen, eta jende asko horren artean, euskararekin espektatiba batzuk zituztenak ere bai. Aldaketak, beraz, badauka espektatiba hori, eta jende guztiaren babesa ere bai.

[Bueno, buenas tardes. Gracias a los representantes de Euskarabidea que han venido, y bueno, gracias también a Mikel. En Navarra hubo un cambio hace varios meses, hubo un cambio político e institucional. El euskera fue una de las razones que impulsaron ese cambio y, además, diría que fue una de las principales razones. Hubo mucha gente que impulsó ese cambio, y entre toda esa gente, también estaban los que tenían unas expectativas con respecto al euskera, por lo tanto, el cambio tiene esa expectativa, además del apoyo de toda la gente.]

Pasa dira hilabete batzuk gobernua eratu zenetik, Euskarabidea eratu zenetik ere bai, eta Gobernuak badauka hor nolabaiteko gida, bere hizkuntza-politika egiteko, besteak beste, akordio programatikoak jartzen dizkiona, eta guk agerraldi hau eskatu dugu, hain zuzen ere, akordio programatiko horren inguruan orain arte egindako urratsak zein diren jakiteko eta, bide batez, aurrerantzean ere, Euskarabideak nola daukan pentsatuta akordio programatiko hori osatzea, martxan jartzea, eta hizkuntza-politika ere nolakoa izan behar duen eta zer urrats emango dituen. Orduan, besterik gabe.

[Han pasado unos meses desde que se formó el gobierno y también desde que se formó Euskarabidea, y el Gobierno dispone de una cierta guía para realizar su política]

lingüística, que es la que le establece, entre otros, el acuerdo programático. Nosotros hemos solicitado esta comparecencia, precisamente para saber qué pasos se han dado hasta ahora en torno a ese acuerdo programático y, de paso, para saber cómo piensa Euskarabidea completar ese acuerdo programático de aquí en adelante, y cómo debe ser también la política lingüística y qué pasos piensa dar en ese sentido. Por tanto, nada más.]

SRA. PRESIDENTA (Sra. Sáez Barrao): Eskerrik asko. Orain, zure txanda da.

SR. AREGI PÉREZ (2): Muchas gracias, señora presidenta, buenas tardes a todos y a todas las presentes, arratsalde on.

Hasi aurretik aurkeztu nahi dizuet nirekin etorri diren ekipoko jendea. Paula Casares aurkeztu dute dagoeneko. Plangintza eta sustapenerako zerbitzuko zuzendaria da. Eta Ander Irizar, hizkuntza-baliabideen zerbitzuko zuzendaria. Nire ondoan ere Mikel Etxegarai, departamenduko kabinete-burua. Eta aukera hau ere aprobetxatu nahi dut Euskarabideko langileen lana eskertzeko egunero erakusten duten inplikazioagatik.

[Antes de empezar les quiero presentar a los miembros del equipo que me acompañan. Ya han presentado a Paula Casares, directora del servicio de planificación y promoción, y a Ander Irizar, director del servicio de recursos lingüísticos. A mi lado está también Mikel Etxegarai, jefe de gabinete del departamento. Y quiero aprovechar también esta oportunidad para agradecer el trabajo de los trabajadores de Euskarabidea, por la implicación que muestran todos los días.]

Orduan, gaurko azalpenean hasi nahi nuen halako kokapen bat egiteko asmoarekin. Nafarroako Gobernua sustengatzen duten alderdiek sinatutako programa-akordioan zehazten da hizkuntza-politika berri bat behar dela, herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatuko dituen, eta hizkuntza-normalizazioaren bidean aurrera egingo duena, eta helburu horiek lortzeko printzipio batzuk ezartzen ditu akordioak, honakoak besteak beste: zeharkakoa izanen da eta politika publiko guztietan eragingo du, baita gizarte arloan ere; aldi berean, eraginkorra, planifikatua eta ebaluatzeko modukoa izatea bermatuko da; xede izango du euskarari gizartearen prestigioa ematea, beti ere askatasunaren eta borondatearen printzipioetatik abiatuta; eta azkenik, hizkuntza politika hori progresiboa izango da, egoera soziolinguistikoko bakoitzera egokitua. Hori bai, kontuan hartu behar da Euskararen Foru Legea duela ia hogeita hamar urte onartu zela, eta herritarrek administrazioarekiko harremanak euskaraz izateko duten eskubidea gauzatzeko neurriak denbora honetan guztian ez direla ezarri egoera soziolinguistikoaren arabera, askoz motelago baizik.

[En la exposición de hoy quisiera mostrar el estado de las cuestiones. En el programa-acuerdo firmado por los partidos que apoyan al Gobierno de Navarra se determina que se necesita una política lingüística nueva, que garantice los derechos lingüísticos de todos los ciudadanos, y que avance en el camino de la normalización lingüística, y el acuerdo establece unos principios con el fin de lograr esos objetivos, que son, entre otros, los siguientes: que sea transversal y que afecte a todas las políticas públicas, también en el ámbito social; asimismo, se garantizará que sea efectiva, planificada y susceptible de ser evaluada; tendrá como objetivo dar prestigio al euskera en la

sociedad, siempre partiendo de los principios de libertad y voluntariedad; y, finalmente, esa política lingüística será progresiva, adaptada a cada situación sociolingüística. Eso sí, se debe tener en cuenta que la Ley Foral del Euskera se aprobó hace treinta años, y que en todo este tiempo no se han establecido las medidas para llevar a cabo el derecho de los ciudadanos para relacionarse en euskera con la administración, ya que dada la situación sociolingüística el proceso ha sido mucho más lento.]

Aipatu diren printzipioak aplikatzeko unean, kontuan hartu behar dira Nafarroako Foru komunitatean indarrean dagoen hizkuntzei buruzko araudi orokor nagusia.

[A la hora de aplicar los principios mencionados, se debe tener en cuenta las principales normativas generales en vigor respecto a las lenguas en la Comunidad Foral de Navarra.]

Alde batetik Euskararen Legea dugu. Euskararen Legearen atariko tituluan daude jasota, besteak beste, legearen helburuak, herritarren hizkuntza-eskubideak, botere publikoen betekizunak eta hizkuntza-eremuak, denak ere aintzat hartzekoak, baina gaur bi artikulua azpimarratu nahi nituzke. 1.2 artikulua hauke dio: «Hauek dira lege honen ezinbesteko helburuak: herritarrak euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea; euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz». 2.1 artikulua hauke dio: «Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira, eta horren ondorioz herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea». 2.2: «Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala; euskara ere ofiziala da Nafarroako Foru Eraentza eta Berrezarri eta Hobetzeari buruzko lege organikoko 9. artikuluan eta Foru Lege honetan aurrez ikusitako eran».

[Por una parte, tenemos la Ley del Euskera. El título preliminar de la Ley Foral del Euskera recoge, entre otras cuestiones, los objetivos de la ley, los derechos lingüísticos de los ciudadanos, las obligaciones y ámbitos lingüísticos de los poderes públicos. Todos ellos deben ser tenidos en cuenta, pero hoy quisiera destacar dos artículos. El artículo 1.2 dice así: «Son objetivos esenciales de la misma: Amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el vascuence y definir los instrumentos para hacerlo efectivo; Proteger la recuperación y el desarrollo del vascuence en Navarra, señalando las medidas para el fomento de su uso». El artículo 2.1 dice así: «El castellano y el vascuence son lenguas propias de Navarra y, en consecuencia, todos los ciudadanos tienen derecho a conocerlas y a usarlas». 2.2: «El castellano es la lengua oficial de Navarra. El vascuence lo es también en los términos previstos en el artículo 9 de la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra, y en los de esta Ley Foral».]

Beste aldetik, aipatu nahi dut Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Karta, Eurokarta bezala aipatuko dut hemendik aitzina. Nazioarteko hitzarmen bat da, Europako Kontseiluaren ministroen batzordeak 1992ko ekainaren 25ean Konbentzio gisa onetsitakoa, eta hamaika estatu-kidek, Espainiak barne, urte berean sinatu zutena. Espainiak 2001ean berretsi zuen Eurokarta hori. Hauek dira Eurokartak aintzat hartzen dituen eremuak: hezkuntza, justizia-administrazioa, administrazioa eta zerbitzu publikoak, hedabideak, kultura-jarduera eta zerbitzuak, bizitza ekonomiko eta soziala. Hala bada, Eurokarta berretsita Estatuak

arau horretan ezarritakoak betetzeko konpromisoa hartu zuen, hau da, bere eremuan hitz egiten diren hizkuntzak babesteko eta sustatzeko konpromisoa, besteak beste, euskara Nafarroan.

[Por otra parte, quiero mencionar la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, que en adelante llamaré la Eurocarta. Es un convenio internacional aprobado a modo de convención el 5 de enero de 1992 por la comisión de ministros del Consejo de Europa, y firmado en ese mismo año por once estados miembros, incluida España, que lo ratificó en 2001. Estos son los ámbitos que tiene en cuenta la Eurocarta: la educación, la administración de justicia, la administración y los servicios públicos, los medios de comunicación, la actividad cultural y los servicios, la vida económica y social. Así, tras ratificar esa Eurocarta, el Estado tomó el compromiso de cumplir lo establecido en esa norma, es decir, tomó el compromiso de proteger y promover las lenguas que se hablan en cada territorio, como el euskera en Navarra.]

Gogora dezagun, bestalde, Espainiako Konstituzioak berak ere xedatzen duela 3.3 artikuluan, Espainia aberatsa izanik mintzaira molde bereziki errespetatu eta zainduko dela kultura-ondare hori. Eurokartak, laugarren atalean, aplikazioaren jarraipena arautzen du. Jarraipen hori, dakizuen bezala, estatuek aurkeztutako aldizkako txostenen bidez egiten da. Txosten horiek adituen batzorde batek aztertzen ditu, eta batzorde horrek azterketaren emaitza Europako Kontseiluko ministroen batzordeari aurkezten dio. Ministro-batzordeak, azterketa hori oinarri hartuta, gomendioak egiten ahal ditu. Berriki plazaratu dira laugarren ebaluazio-txostena eta Europako Kontseiluko ministroen batzordeak Espainiari eginiko gomendioak. Beraz, aipatu diren arau horiek ezarritakoa bete nahi bada, argi samar agertzen da plangintzaren beharra. Bi hizkuntza dituzten autonomia erkidego guztietan daude hizkuntza-politikak aplikatzeko unitate administratiboak eta, horietan, ohikoak dira gaur azalduko dizkizuedan lan-ildoak, ohikoa den bezala desadostasunak egotea, eta horiek gainditzeko elkarguneak bilatzea. Ohikoa ez dena, planik ez egitea edo baliabiderik ez jartzea da.

Recordemos, por otra parte, que incluso la Constitución española establece lo siguiente en su artículo 3.3: «La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección». La Eurocarta, en su cuarto apartado, regula el seguimiento de la aplicación. Esa aplicación, como saben, se realiza mediante informes periódicos presentados por los estados. Esos informes los analiza una comisión de expertos, y esa comisión presenta el resultado del análisis a la comisión de ministros del Consejo de Europa. La comisión de ministros puede hacer recomendaciones en base a ese análisis. Recientemente se han publicado el cuarto informe de evaluación y las recomendaciones realizadas a España por la comisión de ministros del Consejo de Europa. Por tanto, si se quiere cumplir lo establecido por esas normas mencionadas, es bastante evidente la necesidad de una planificación. En todas las comunidades autónomas que tienen dos lenguas existen unidades administrativas para la aplicación de las políticas lingüísticas, y en esas políticas lingüísticas son habituales las líneas de trabajo que les voy a explicar hoy, que como es normal habrá desacuerdos, y habrá que buscar convergencias para superarlos. Lo que no es normal es que no se hagan planes o que no se dispongan recursos.]

Eta une honetan helduko diot EH Bildu Nafarroak zehazki eskatutakoari. Orduan, banatu dizuegun paperean ikusiko duzue, gutxi gorabehera, gidoia, jarraipena errazteko asmoarekin.

[Y ahora me referiré a lo que ha pedido concretamente EH Bildu Navarra. Así, en los papeles que les hemos distribuido verán un guion, a grosso modo, con el fin de facilitar el seguimiento.]

Lehenengo atalean, antolamenduari eta baliabideei buruzko urratsak azalduko ditut.

[En el primer apartado explicaré los pasos que se han dado respecto a la organización y los recursos.]

Euskarabideak bere eginkizunei aurre egiteko 4.235.000 euro ditu, eta guztira 58 langile bi zerbitzutan banatuta, lehen aipatu ditudanak: hizkuntza-baliabideen zerbitzua, eta euskararen sustapenaren eta plangintzaren zerbitzua.

[Euskarabidea dispone de 4.235.000 euros para hacer frente a sus tareas, y de un total de 58 trabajadores repartidos en dos servicios, que son los que he mencionado antes: el servicio de recursos lingüísticos, y el servicio de promoción y planificación del euskera.]

Hizkuntza-eskubideak bermatzeko egindako urratsen aldean, hauek dira aztertu ditugun arauak eta alderdiak: arauzko esparru egoki bat garatzea agertzen da akordio-programatikoa, eta orduan, lehenengo lana izango da hizkuntza politikaren arloan indarrean dagoen araudi hori aztertzea. Araudi orokorraren alderdian bi aztertu ditugu. Lehenengoa: 29/2003ko Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duena. Dekretu honek Nafarroako hizkuntzak modu desorekatuan tratatzen ditu. Egoera hori gainditzeko egokia da foru dekretu berri bat egitea, helburu hauekin: euskara eta gaztelaniari trataera bertsua ematea, herritarrei aukera ematea euskaraz egiteko duten eskubidea gauzatzeko, hizkuntza-eskakizunak izan dezaketen lanpostuen tipologia finkatuko da; abiapuntua herritarrekiko harremana izango da. Helburu horiek, beti ere, honako hauek izango dituzte kontuan: zonifikazioak finkatzen duen graduazioa, egoera soziolinguistikoa - horretarako, 2011ko Euskararen Mapa Soziolinguistikoa agertzen diren portzentajeak kontuan hartuko dira-, eta hizkuntza-eskakizuna aldatuko litzaiekeen lanpostuen kasuan, errespetatuko dira lanpostu horiek betetzen dituzten pertsonen eskuratutako eskubideak, gehienez ere, eta nahi badute, horretarako antolatzen diren prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko egokiera eskainiko zaie, eta onartuko balute, prestakuntza-ekintza horietan lehentasuna izango lukete.

[Con respecto a los avances realizados para garantizar los derechos lingüísticos, estas son las normas y los aspectos que hemos analizado. El acuerdo programático menciona el desarrollo de un marco normativo adecuado y, por tanto, la primera tarea será la de analizar la normativa en vigor en el ámbito de la política lingüística. En lo que se refiere a la normativa general hemos analizado dos aspectos. Primero: el Decreto Foral 29/2003, del 10 de febrero, que regula la utilización del euskera en la administración pública de Navarra. Este Decreto trata las lenguas de Navarra de forma desequilibrada. Con el fin de superar esa situación, procede realizar un nuevo decreto foral con estos objetivos: conceder un tratamiento igual al euskera y al castellano, y dar a los

ciudadanos la oportunidad de utilizar su derecho de hablar en euskera; asimismo, se fijará la tipología de los puestos de trabajo que puedan requerir perfiles lingüísticos, que tendrá como punto de partida la relación con respecto a los ciudadanos. Esos objetivos tendrán siempre en cuenta las siguientes cuestiones: la graduación fijada por la zonificación, la situación sociolingüística, para lo cual se tendrán en cuenta los porcentajes que aparecen en el Mapa Sociolingüístico de 2011 del Euskera, y en el caso de los puestos de trabajo a los que se les cambiaría el perfil lingüístico se respetarán los derechos adquiridos por las personas que ocupan esos puestos de trabajo y, a lo sumo, y si así lo desean, se les ofrecerá la oportunidad de participar en las actividades formativas que se organicen con dicho fin, y si la aceptaran, tendrían prioridad en esas actividades formativas.]

Aztertu den bigarren araua 270/1991ko Foru Dekretua da, izen ofizialen erabilera arautzen duena. Foru Dekretu horren ondoren, hainbat erabaki ere hartu izan dira eta, horren ondorioz, irizpide askotarikoak ari dira aplikatzen. 2014an aurreko gobernuak martxan jarri zuen dekretu berri bat egiteko prozedura, komenigarria ikusi baitzen irizpide horiek bateratzea eta egokitzea, euskarari buruzko foru-legearen literaltasunari, eta orobat egokitzea *Instituto Geográfico Nacional*ak toponimiaz emandako jarraibideei. Proposatutako irizpideak hauek dira: bi eratako izen ofizialak egongo dira Nafarroan, legeak horrela jasotzen baitu; izen ofizialak gaztelaniaz eta euskaraz dituzten biziguneak eta izen ofizialak bakarra duten biziguneak. Izen ofiziala euskaraz eta gaztelaniaz dituzten biziguneen kasuan, irizpideak hauek izango dira, testualizazioan erabiltzeko momentuan: administrazioaren jardun idatzia gaztelaniaz izanez gero, bi izen ofizialen artetik gaztelaniazkoa erabiliko da; administrazioaren jardun idatzia euskaraz izanez gero, bi izen ofizialen artetik euskarazkoa erabiliko da beti, eta bide-seinaleetan biak erabiliko dira Nafarroako Foru Komunitate guztian.

[La segunda norma que se ha analizado es el Decreto Foral 270/1991, que regula la utilización de la nomenclatura oficial. Tras ese Decreto Foral se han tomado diversas decisiones y en consecuencia se están aplicando diversos criterios. En 2014, el gobierno puso en marcha un procedimiento para la realización de un nuevo decreto, ya que se consideró conveniente la unificación y adaptación de esos criterios a la literalidad de la Ley Foral del Euskera, así como la adaptación a las directrices establecidas por el Instituto Geográfico Nacional sobre la toponimia. Estos son los criterios propuestos: en Navarra existirán dos tipos de nombres oficiales, puesto que así lo recoge la ley, es decir, los lugares cuyos nombres oficiales estén en castellano y en euskera, y los lugares que tengan un único nombre oficial. En el caso de los lugares cuyos nombres oficiales estén en euskera y en castellano, los criterios a utilizar en el momento de la textualización serán los siguientes: en el caso de que la actividad administrativa por escrito sea en castellano, de entre los dos nombres oficiales se escogerá el que esté en castellano; en el caso de que la actividad administrativa por escrito sea en euskera, de entre los dos nombres oficiales se utilizará siempre el que esté en euskera, y en las señales circulatorias se utilizarán las dos lenguas en toda la Comunidad Foral de Navarra.]

Aztertu dugun hurrengo eremua *plantilla* organikoari buruzkoa da, eta une honetan *plantilla* organikoaren azterketa egiten hasi gara beharrak identifikatzeko eta prozedura egokiak

planifikatzeko. Horrek eragina izan dezake 203/2001eko Foru Dekretuan *plantilla* organikoko zer lanpostutan jakin behar den euskaraz finkatzen duen horretan.

[El siguiente ámbito que hemos analizado es sobre la plantilla orgánica, y en este momento hemos comenzado a realizar el análisis de la plantilla orgánica con el fin de identificar las necesidades y planificar los procedimientos adecuados. Eso puede afectar a lo que se establece en el Decreto Foral 203/2001 sobre en qué puesto de trabajo de la plantilla orgánica se necesita tener conocimientos de euskera.]

Planifikazioaren ikuspegitik, aukera hauek aurreikusten dira: euskara ikastaroak eskaintzea hala nahi eta hori behar duten langileentzat; elebidunak diren langileei prestakuntza teknikoa ematea eta euskaraz lan egin dezaten baliabideak eskaintzea, eta beraien beharretara egokitutako prozedura tutorizatuak finkatzea; lan-eskaintza publikoaren bidez betetzen joatea hizkuntza-eskakizunak dituzten lanpostuak; finkatu egin beharko dira kontuan hartu beharreko irizpideak eta epeak. Langileen prestakuntza eta jakintza-mailaren egiaztapena *plantillari* lotua dagoen beste arlo bat da. Orduan, prestakuntza-ikastaroak eta konpentsazioak arautzen dituen foru-dekretua eguneratu beharra ikusten dugu arrazoi hauengatik: foru-dekretua 1990. urtekoa da, egun eskaintzen diren ikastaro berriak ez ditu jasotzen, eta konpentsazioak emateko unean zalantzak sortzen zaizkigu egunerokoan; ikastaroetan parte hartzeko irizpideak oso orokorrak dira, eta gehiago zehazteko beharra ikusten dugu; ikas-prozesua aurreratua edukitzea, lanpostuan erabiltzeko aukera egotea edo hizkuntza-eskakizuna duen lanpostu bat betetzen egotea izan daitezke aintzat hartu daitezkeen irizpideak. Bukatzeko, aipatu nahi dut ere, Estatuko administrazioko langileen prestakuntzari buruzko hitzarmenaren berritzea hurrengo hilabeteetan landuko dugula. Estatuko administrazioko funtzionarioek aukera dutelako Nafarroako Gobernuko euskaltegian formatzeko.

Desde el punto de vista de la planificación, se prevén estas opciones: ofrecer cursos de euskera a los trabajadores que así lo deseen y lo necesiten, ofrecer formación técnica a los trabajadores bilingües y recursos para que trabajen en euskera y establecer procedimientos tutorizados adaptados a sus necesidades, ir ocupando puestos de trabajo con perfiles lingüísticos mediante la oferta pública de empleo, para lo cual habrán de establecerse los criterios y plazos a tener en cuenta. La comprobación del nivel de formación y conocimiento de los trabajadores es otro ámbito relacionado con la plantilla. Por tanto, consideramos que se requiere la actualización del decreto foral que regula los cursos de formación y las compensaciones por las siguientes razones: el decreto foral es de 1990, no recoge los cursos nuevos que se ofrecen en la actualidad, y nos surgen dudas en la actividad diaria a la hora de dar compensaciones; los criterios para participar en los cursos son muy generales, y consideramos que es necesario concretar más; los criterios que se pueden tener en cuenta son: tener un proceso de aprendizaje avanzado, tener la oportunidad de utilizarlo en el puesto de trabajo, u ocupar un puesto de trabajo con un perfil lingüístico. Para finalizar, quiero mencionar también que la renovación del convenio sobre la formación de los empleados de la administración del estado la elaboraremos el mes que viene, porque los funcionarios de la administración pública del estado tienen la oportunidad de formarse en el euskaltegi del Gobierno de Navarra.]

Beste arlo bat euskara mailen egiaztapena da. lazko maiatzean onartu zen foru-dekretu bat da. Ziurtagiriak eta egiaztapen-sistema arautzea beharrezkoa ikusten da. Baina A1, A2, B1 eta B2 mailak egiaztatzekeo aipatu dudan foru-dekretuaren aplikazioan, ohartu gara azpiegitura zailtasunak izan ditzakegula, eta, gure ustez, dekretua onetsi zenean ez zen kontuan hartu izango zuen inpaktua. Ahal dugun bezain laster helduen euskalduntzean ari diren eragileekin kontrastatu nahi dugu nola aurre egin egoera honi, eta nola antolatu egiaztatze-sistema arrazional eta bideragarri bat.

[Otro ámbito es la comprobación del nivel de euskera. Se trata de un decreto foral que se aprobó en mayo del año pasado. Se considera que es necesario regular los certificados y el sistema de verificación. Pero nos hemos dado cuenta de que podemos tener ciertas dificultades para comprobar los niveles A1, A2, B1 y B2 en la aplicación del decreto foral que he mencionado y, en nuestra opinión, cuando se aprobó el decreto no se debió de tener en cuenta el impacto que este tendría. Queremos contrastar cuanto antes la manera de resolver esta situación con los agentes que están trabajando en la euskaldunización de las personas adultas, y ver cómo organizar un sistema de verificación racional y viable.]

Beste arlo bat, programa-akordioan jasota dagoena, ekitaldi publikoetan, harreman eta protokolo-ekitaldietan eta, oro har, foru-erakunde publikoen irudi korporatiboan euskarak presentzia egokia izan dezan ziurtatzea agertzen da. Alde horretatik, aipatu nahi dut komunikazio zuzendaritza nagusiak duela arlo honetan erabakiak hartzeko eskumena, eta gure lankidetzarekin orain arte urrats hauek eman ditu, besteak beste: publizitatea bi hizkuntzetan lantzen ari da irratietan eta prentsa idatzian; Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen foru-dekretua ere onetsi da, eta departamentuetako errotulazioa bi hizkuntzetan jartzeko prozesua martxan jarri da.

[Otro ámbito que está recogido en el acuerdo programático trata sobre garantizar una presencia adecuada del euskera en la imagen corporativa de las instituciones forales públicas en actos públicos y en actos protocolarios y de relaciones. A ese respecto quiero mencionar que la dirección general de comunicación tiene la competencia de tomar decisiones en ese ámbito, quien, junto con nuestra colaboración, ha dado, entre otros, los siguientes pasos: está desarrollando la publicidad en los dos idiomas tanto para la radio como para la prensa escrita; también se ha aprobado el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y el decreto foral que regula su utilización, y se ha puesto en marcha el proceso para poner la rotulación del departamento de las dos lenguas.]

Orain, azalpena zentratuko dut hizkuntza-sustapenaren eta normalizazioa helburu duten urratsetan. Hasteko, aipatu nahi dut euskararen plan estrategikoaren prozesua. Otsailaren 16an, Nafarroako Gobernuak Euskararen Nafar Kontseiluko ohiko bilkuran plan estrategikoa egiteko nondik norakoak eta kronograma aurkeztu zuen. Helburu honekin abiatuko da plan hori gauzatzeko prozesua: hurrengo urteetan garatu behar den hizkuntza politikaren lerro estrategikoak identifikatzea, helburuak zehaztea, ekintzak finkatzea eta ebaluazioa egiteko adierazleak formulatzea. Planaren iraunaldia 2016-2019 urteen artekoa izatea espero dugu, eta, gutxienez, kontuan hartuko dira eremu eta lan-ildo hauek: foru-administrazioa eta toki-entitateak, euskararen transmisioa, euskararen erabilera, bereziki gazteei begirako programak

eta gune euskaldunei begirako proposamenak landuko dira; hedabideak; esparru sozioekonomikoa; kultura; euskararen ondare ez materiala eta toponimia –Euskararen Nafar Kontseilua berritzeari buruzko lanketa ere horren barruan sartu nahi dugu–; prozesua, azterketa-diagnostikoa egitea dauden iturriak erabiliz; ezagutza, erabilera, sektoreen informazioa ere bilatuko dugu, analisi-teknikak erabiliz. Proposamena lantzea eta plana bera idaztea izango da horren amaiera. Orduan, aurreikusten dugun kronograma da: martxoan abian jarriko dugu aholkularitza enpresa bat kontratatzeko prozesua; apirilean eta maiatzean esparruz esparruko bilerak egingo dira, parte hartzeko aukera emateko, eta zirriborroa landuko da; irailean, Euskararen Nafar Kontseiluak behin betiko plana onetsiko du; eta ondoren, planaren aurkezpena egingo dugu.

[Ahora centraré la explicación en las tareas cuyo objetivo es la promoción de la lengua y su normalización. Para empezar, quiero mencionar el proceso del plan estratégico del euskera. El 16 de febrero el Gobierno de Navarra presentó en el pleno del Consejo Navarro del Euskera las directrices y el cronograma para la realización del plan estratégico. El proceso para la realización de dicho plan se pondrá en marcha con los siguientes objetivos: identificar las líneas estratégicas de la política lingüística a desarrollar durante los próximos años, definir los objetivos, fijar las acciones y formular los indicadores para la realización de la evaluación. Esperamos que el plazo de duración del plan sea de 2016-2019, y se considerarán, como mínimo, lo siguientes ámbitos y líneas de trabajo: la administración foral y las entidades locales, la transmisión del euskera, la utilización del euskera –se trabajarán sobre todo los programas para los jóvenes y las propuestas para las zonas vascófonas–, el ámbito socioeconómico, la cultura, el patrimonio no material del euskera y la toponimia –donde también queremos incluir el trabajo sobre la renovación del Consejo Navarro del Euskera–, hacer un proceso, un diagnóstico de análisis con las fuentes existentes, el conocimiento, la utilización, y también buscaremos la información sectorial mediante técnicas analíticas. El desarrollo de la propuesta y la redacción del plan concluirán dicha tarea. Por tanto, este es el cronograma que hemos previsto: En marzo pondremos en marcha un proceso para la contratación de una empresa asesora; en abril y mayo se mantendrán reuniones en cada ámbito con el fin de ofrecer la oportunidad de participar y se desarrollará un borrador; en septiembre el Consejo Navarro del Euskera aprobará el plan definitivo, y a continuación, realizaremos la presentación del plan.]

Landu behar dugun beste eremu bat euskararen presentzia hedabideetan izango da. Atal honi dagokionez, aipatzekoak dira orain arte egindako batzuk: irratien lizentziak banatzeko esleipen-prozesua amaitu da, eta balorazio-mahaiak egindako emaitzaren ondorioz euskaraz emititzen duen irrati batek lizentzia eskuratu du. Eta une honetan, ETB ikusteko aukera lantzen ari da, bai Europako adituen azken txostenean jasota dagoelako horren beharra, eta bai Parlamentuak 2014ko abenduaren 16an hartutako erabakia bete nahi delako. Programa-akordioan euskarazko hedabideekin eta euskara hein jakin batean erabiltzen dutenen finantzaketa hobetzea eta hitzarmenak egitea adostu zen. Ondoren, hedabideen ordezkariekin egindako bileretan, azaldu diegu ez dagoela berme juridikorik hitzarmenak sinatzeko, administrazioak beti lehia bermatu behar baitu. Aipatu dugun plan estrategikoan, esparru horren diagnostikoa egitea ere aurreikusi da, hurrengo urteetako lan ildoak finkatu ahal

izateko. Aldi berean, ordea, deialdi bat egingo da 2016an euskarazko irrati eta hedabide idatzientzat, hein batean euskaraz informatzen duten irrati eta hedabide idatzientzat, eta Internet bidez zabaltzen diren hedabideentzat.

[Otro ámbito que debemos desarrollar es la presencia del euskera en los medios de comunicación. Con respecto a este apartado cabe mencionar las tareas que ya se han realizado hasta el momento: ha finalizado el proceso de adjudicación para la distribución de las licencias para la radio, y, tras el resultado de la mesa de valoración, una radio que emite en euskera ha accedido a la licencia. Y en este momento se está trabajando en la posibilidad de ver la ETB, tanto porque el último informe de expertos de Europa recoge su necesidad, como porque se quiere dar cumplimiento a la decisión adoptada por el Parlamento el 16 de diciembre de 2014. En el acuerdo programático se acordó mejorar la financiación y realizar convenios para los medios de comunicación en euskera y para aquellos que utilicen el euskera en cierta medida. Después, en las reuniones mantenidas con los representantes de los medios de comunicación, les hemos explicado que no hay garantías judiciales para la firma de convenios, ya que la administración debe garantizar siempre la competencia. En el plan estratégico que hemos mencionado se ha previsto también la realización del diagnóstico de ese ámbito, con el fin de poder fijar las líneas de trabajo de los próximos años. Sin embargo, al mismo tiempo, en 2016 se hará una convocatoria para las radios y los medios de comunicación por escrito en euskera, para las radios y medios de comunicación en escrito que informan en alguna medida en euskera, y para los medios que se difunden por Internet.]

Helduen euskalduntzea eta alfabetatzeari buruz, mintzatuko naiz orain. 2015ean deialdia egitea lortu zen eta konpromisoari aurre egiteko 131.000 euro lortu ziren, 2015-2016ko urritik abendua bitarteko jardunari laguntza emateko. Guztira hemezortzi euskaltegitarako laguntza banatu zen, horietan 1.640 ikasle daude matrikulatuta une honetan. Euskaltegien ordezkariekin egindako bileretan gauza bera azaldu genien, hau da, ez dagoela berme juridikorik hitzarmenak sinatzeko, administrazioak lehia bermatu behar baitu. Orduan, dirubanaketak beti deialdien bidez kudeatu behar dira. Plan estrategikoa egiteko egin behar den diagnostikoan aurreikusi da mahai espezifiko bat eratuko dela lan-ildoak finkatu ahal izateko. Orduan izango da unea ikusteko zer baliabide jarri beharko lirartekeen hurrengo urteetan. Prozesu hori lantzen den bitartean, orain arte bezala arituko gara, 2016ko laguntzen deialdia argitaratuko dugu, oinarrietan aldaketa handirik sartu gabe. 400.000 euro banatuko dira, eta orain arteko irizpideak mantenduko dira: ikasle-kopurua, ikasle-ordu kopuruak eta gelako ratioak.

[Ahora me referiré a la euskaldunización y alfabetización de las personas adultas. En 2015 se consiguió hacer una convocatoria y se obtuvieron 131.000 euros para afrontar el compromiso, con el fin de ayudar con la tarea durante el periodo de octubre a junio. En total se repartieron ayudas a dieciocho euskaltegis, en los cuales en este momento hay matriculadas 1.640 personas. Después, en las reuniones mantenidas con los representantes de los euskaltegis, les hemos explicado lo mismo, es decir, que no hay garantías judiciales para la firma de convenios, ya que la administración debe garantizar la competencia. Por tanto, las distribuciones económicas deben gestionarse

siempre mediante convocatorias. En el diagnóstico que se debe realizar para la elaboración del plan estratégico se ha previsto que se formará una mesa específica con el fin de fijar las líneas de trabajo. Entonces se tendrá la ocasión de ver qué recursos habría que disponer durante los próximos años. Mientras se desarrolle ese proceso seguiremos como hasta ahora, publicaremos la convocatoria de ayudas de 2016, sin introducir demasiados cambios en las bases. Se repartirán 400.000 euros, y se mantendrán los criterios que se han mantenido hasta ahora: el número de estudiantes, el número de horas lectivas y las ratios de las aulas.]

Beste arlo bat izango da irabazi-asmorik gabeko elkarteei zuzendutako laguntzak euskararen erabilera eta euskararen aldeko sentsibilizazioa sustatzeko. Eremu honen inguruko hurrengo urteetako ildoak plan estrategikoan landuko dira; baina, hala ere, martxan jartzen ari gara 2016an 110.000 euroko kopurua banatzeko laguntzen deialdia. Hauek dira lagundu daitezkeen jarduerak: euskararen erabilera eta ahozko komunikazioa hobetzen duten jarduerak eta tailerrak; euskararen aldeko sentsibilizazioa lantzen duten jarduerak, edo gizartearen aniztasuna errespetatuz mezu positiboak lantzen dituzten kanpainak; euskarazko jarduera kulturalak.

[Otro ámbito trata de las ayudas dirigidas a las asociaciones sin ánimo de lucro con el fin de promover la utilización del euskera y la sensibilización a favor del euskera. Las líneas para los próximos años de este aspecto se desarrollarán en el plan estratégico, sin embargo, estamos poniendo en marcha la convocatoria de ayudas para la distribución de la cantidad de 110.000 euros en 2016. Estas son las actividades para las que se pueden ofrecer ayudas: actividades y talleres que mejoren la utilización del euskera y la comunicación oral; actividades que desarrollan la sensibilización a favor del euskera o campañas que elaboran mensajes positivos respetando la pluralidad de la sociedad; las actividades culturales en euskera.]

Beste eremu bat toki-entitateekiko harremanei buruzkoa da. Hemen ere aipatu behar dut programa-akordioan toki-entitateekiko lankidetzeta-hitzarmenari berriro heltzea jasoa dagoela. Hainbat toki-entitateko ordezkariekin elkartu gara eta hau da aurreikusten ari garen egoera: 2016an hitzarmena adosteko prozesua lantzearekin batera, diru-laguntzen deialdia martxan jarri behar dugu. Deialdia martxoan argitaratuko dela aurreikusten ari gara, eta 300.000 euro banatuko dira. Aldi berean, proiektu komunak elkarrekin lantzeko aukerak landuko dira: sentsibilizazio-kanpainak, *Ze berri?* aldizkaria izan daitezke horren harira dauden adibideak. Deialdian parte hartu nahi duten toki-entitateek, beren organo-eskudunek onetsitako urteko jarduera-programa aurkeztu beharko dute eta, gutxienez, atal hauek izango ditu: toki-entitate eskatzailearen eragin-eremuko egoera soziolinguistikoen analisia, datu soziolinguistiko eguneratuak, eta programan sartuko diren jarduera-esparruen diagnostikoa, erabilera, presentzia eta sustapena neurtu ahal izateko. Eta ondoren, eragin nahi den jarduera-esparru bakoitzerako, helburuak zehaztuko dira, eta hori gauzatzeko ekintzak.

[Otro ámbito es el de las relaciones con respecto a las entidades locales. Aquí también tengo que mencionar que en el acuerdo programático se ha incluido abordar de nuevo el convenio de colaboración con respecto a las entidades locales. Nos hemos reunido con los representantes de diversas entidades locales, y esta es la situación que estamos

viendo: en 2016, además de elaborar el proceso para la aprobación del convenio, debemos poner en marcha la convocatoria de ayudas. Hemos previsto que la convocatoria se publicará en marzo, y se repartirán 300.000 euros. Al mismo tiempo, se barajarán diversas opciones con el fin de desarrollar proyectos comunes en conjunto: las campañas de sensibilización y la revista «Ze berri?» pueden ser unos ejemplos a ese respecto. Las entidades locales que quieran participar en la convocatoria deberán presentar el programa de actividades aprobado por sus órganos competentes, que contendrá al menos los siguientes apartados: Análisis sociolingüístico de la situación del ámbito de actuación de la entidad local solicitante, datos sociolingüísticos actualizados, y el diagnóstico de los ámbitos de actuación que se incluirán en el programa, con el fin de poder medir la utilización, la presencia y la promoción del euskera. Y a continuación, para cada ámbito de actuación en el que se quiera ejercer influencia, se establecerán objetivos y acciones para dicho fin.]

Gainera, ez dugu begien bistatik galdu behar Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udallerri eta Kontzejuen Federazioak martxan jarri duten parte hartze prozesua Nafarroako toki-administrazioa berrantolatzeke, euskararen kudeaketa, izan ere, aztertu beharreko alderdia izango baita.

Además, no debemos perder de vista que el Gobierno de Navarra y la Federación de Municipios y Concejos de Navarra han puesto en marcha un proceso de participación para la reorganización de la administración local de Navarra, ya que, efectivamente, la gestión del euskera va a ser un aspecto a tener en cuenta.]

Bestelako urratsak. Hilabete hauetan, eta hainbat pauso eman ditugu eta hemendik aurrera ere emango ditugu beste arlo hauetan: alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza-politikarako Sailburuordetzaren eta Euskarabidearen arteko berariazko lankidetzaz hitzarmena gauzatze aldera emango ditugun urratsak. 2012ko uztailaren 5ean sinatu zen hitzarmen hori, eta esparru hauetan elkarlana garatzea adostu zen: euskara helduei irakastea, hizkuntza-gaitasunen ebaluazioa eta egiaztapena, ikerketa eta mapa soziolinguistikoak, euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzulpenak, itzulpen-memoriak, terminologia, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, hizkuntzaren kultura-sustapena. Lankidetzaz hori honetan euskararen adierazle-sistema proiektuaren inguruan gauzatu da. Proiektu hori elkarrekin landu dugu, Iparraldeko euskararen erakunde publikoarekin batera, eta Europako POCTEFA deialdira aurkeztu da. 2016an egin behar den seigarren inkesta soziolinguistikoa prestatzeko lanean ari gara, eta aurrean, gainerako esparruetan elkarlanerako ildoak zehaztuko dira.

[Otras tareas. Durante estos meses hemos avanzado en diversos ámbitos, y a partir de ahora continuaremos avanzando en estos otros: por una parte, están los pasos que vamos a dar con el fin de elaborar el convenio de colaboración específico entre la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco y Euskarabidea. Dicho convenio fue firmado el 5 de julio de 2012, donde se acordó mantener la colaboración en los siguientes ámbitos: la enseñanza del euskera a personas adultas, evaluación y verificación de las capacidades lingüísticas, investigación y mapas sociolingüísticos, traducciones de euskera-castellano y castellano-euskera, memorias de traducción,

terminología, tecnologías de la información y la comunicación, y promoción de la cultura lingüística. Esa colaboración se ha formulado en este momento en torno al proyecto del sistema de indicadores del euskera, que hemos desarrollado de forma conjunta, junto con la organización pública del euskera de Iparralde, y ha sido presentado a la convocatoria de POCTEFA de Europa. Estamos trabajando para preparar la sexta investigación sociolingüística que se debe realizar en 2016, y este año se definirán las líneas para la colaboración en el resto de los ámbitos.]

Beste eremu bat, hitzarmena Euskaltzaindiarekin. Hitzarmen honen xedea Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren oinarri orokorrak ezartzea eta sinatzaileek ontzat jotzen dituzten konpromisoen esparrua arautzea da, Euskaltzaindiak Nafarroako Foru Komunitatean duen jarduna eta Euskaltzaindiaren funtzionamendu onerako baliagarriak diren jardura orokorrak gauzatzeko aldera. Aurreko urteetan hitzarmen hau ere egiten zen. Orduan, 2016ko urteko aurrekontuetan 96.100 euroko kontu-saila dago.

[Otro aspecto es el convenio con Euskaltzaindia. El objetivo de este convenio es el de establecer las bases generales de la colaboración entre Euskarabidea y Euskaltzaindia, y regular el ámbito de los compromisos que aprueben los firmantes, con el fin de llevar a cabo la actividad de Euskaltzaindia dentro de la Comunidad Foral de Navarra y las actividades generales útiles para el buen funcionamiento de Euskaltzaindia. Los años anteriores este convenio también tenía lugar. Por tanto, en los presupuestos del año 2016 tenemos una partida de 96.100 euros.]

Orain, aurreko agertuko litzatekeen hitzarmen berri bat izango da Eusko Ikaskuntzarekin. Eusko Ikaskuntzako zuzendaritzarekin urte honen hasieran bilera bat egin dugu eta, otsailean, Nafarroari begira lantzen dituzten proiektuak jasoko dituzten txostena aurkeztuko digute, zeina abiapuntua hartuko baitugu hitzarmen baten oinarriak zehazteko; 2016. urteko aurrekontuetan 20.000 euroko kontu-saila dago horretarako.

[Ahora, tendremos un nuevo convenio con Eusko Ikaskuntza que se publicaría este mismo año. Hemos mantenido una reunión con la dirección de Eusko Ikaskuntza a principios de este año y, en febrero, nos presentarán el informe que recoge los proyectos que desarrollan de cara a Navarra, que consideraremos como punto de partida para sentar las bases de un convenio; en los presupuestos de 2016 hay una partida presupuestaria de 20.000 euros para dicho fin.]

Gero, lantzen ari gara ere harremanak Estatuko eta Europako beste hizkuntza-komunitate batzuekin. Bada aukera bat Eusko Jaurlaritzak, Galiziako Xuntak eta Kataluniako Generalitatek hizkuntza-politikari buruz duten lankidetzaren protokoloan parte hartzeko, bertan agertzen diren helburuak egokiak baitira Nafarroarentzat eta lankidetzaren aritza beti baita aberasgarria. Oraindik lehen kontaktuak egin ditugu arlo honetan, eta orduan, kontu hau nahiko berde dago baino landu nahi dugun ildo da.

[También estamos trabajando en las relaciones con otras comunidades lingüísticas del estado y de Europa. Otra opción es la de participar en el protocolo de colaboración sobre política lingüística entre el Gobierno Vasco, la Xunta de Galicia y la Generalitat de Cataluña, puesto que sus objetivos son adecuados para Navarra, y la colaboración

siempre es interesante. Todavía solo hemos mantenido los primeros contactos en este ámbito y, por tanto, este aspecto está aún bastante verde, pero es una línea que queremos trabajar.]

Eta beste esparru bat da Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarea, NPLD siglekin ezaguna dena. Bere estatutuen hirugarren artikuluan ezartzen duenez, helburu du hizkuntza aniztasunaren ahotsa izatea eta aniztasun horren sustapena ordezkatzea European. Sareak hizkuntza aniztasunari buruzko informazioa eta esperientziak trukatzeko ditu. Euskarabidea sareko eskubide osoko kide da azken zortzi urtetan.

[Y otro aspecto es la red europea conocida como NPLD para la promoción de la diversidad lingüística. Tal y como establece en el artículo 3 de sus estatutos, su objetivo es ser la voz de la diversidad lingüística, y hacer las labores de representación de la promoción de dicha diversidad en Europa. La red permite intercambiar la información y las experiencias sobre la diversidad lingüística. Es miembro de pleno derecho de la red Euskarabidea desde hace ocho años.]

Nafarroako euskalkien babesa eta sustapena da gaurko aurkezpenean landuko dudana azken atala. Eginkizun hau gauzatzeko, Nafarroako Euskararen Mediateka orain hamabost urte abian jarri zen helburu honekin: euskalki desberdinetan ekoiztako mota guztietako materiala biltzea, sailkatzea eta adituen, nahiz herritar ororen eskura jartzea, kontsultatzeko erraza den sistema informatiko bat baliatuta beti ere. Guztira, bi mila audio fitxategi, bost mila bideo fitxategi eta hirurehun testu-fitxategi baino gehiagok osatzen dute funtsa. Funts hori guztia gizarteratzeko plana gauzatu nahi dugu.

[El último aspecto que voy a tratar en la presentación de hoy es la protección y la promoción de los dialectos de Navarra. Con el fin de desarrollar esta tarea, hace quince años se puso en marcha la Mediateca del Euskera de Navarra con este objetivo: recopilar material de todo tipo reproducido en distintos dialectos, clasificarlo, y disponerlo al acceso tanto de expertos como de los ciudadanos en general, mediante un sistema informático de fácil consulta. El fondo se compone, en total, de dos mil ficheros de audio, cinco mil ficheros de video y más de trescientos ficheros de texto. Queremos elaborar un plan para la divulgación de todo ese fondo.]

Eta bukatzeko, gaur egin dudana azalpena trantsizio-egoera batean kokatu behar da, eta neurri asko nahita ez premiei erantzuna ematera bideratuak daude. Behin plan estrategikoa onartuta, lehenetsunak, epeak, baliabideak eta ezarritako helburuak ebaluatzeko adierazleak modu argiagoan azaltzeko aukera egongo da. Egoera hori lagungarri izango dugu bai guk gure eguneroko lanari aurre egiteko, bai eta zuek ere gure lanaren kontrola egiteko. Eskerrik asko.

[Y para finalizar, la presentación que he hecho hoy debe situarse en un momento de transición, y muchas medidas están dirigidas a responder necesidades fundamentales. Una vez que se apruebe el plan estratégico, tendremos la oportunidad de explicar de forma más clara las prioridades, los plazos, los recursos y los indicadores para la evaluación de los objetivos establecidos. Entonces, podremos desarrollar mejor nuestra tarea diaria, y ustedes podrán controlar mejor nuestro trabajo. Gracias.]

SRA. PRESIDENTA (Sra. Sáez Barrao): Eskerrik asko Mikel Aregi jauna.

Y ahora, EH Bilduren txanda da.

SR. ANAUT PEÑA (3): Arratsalde on, berriz ere. Orain esan dut, sei hilabete joan dira, Euskarabidea hasi zenetik, gutxi gorabehera. Euskarabideari egokitu zaio urte askotan aplikatu den hizkuntza-politika jakin bati buelta ematea. Horretarako, denbora beharko da, denbora behar du eta denbora beharko da. Baina guk uste dugu badela garaia ere, eta horregatik jakin nahi genuen hain zuzen ere zer egiten ari den, bada pixka bat urrats horiek egiten hasteko. Uste dugu, segur aski, izan dituela Euskarabideak zailtasun batzuk, hasieran, beharbada, atala bera ere berregituratzeko, ekipoa ere osatzeko; baina momentu honetan bere estatutuak onartuta dauzka, hor dauzka definituta bere egitekoak zein diren. Euskararen Kontseilua ere osatuta dago eta, esan dezagun, ekipoak eta atalak eta, uste dugunez, behintzat, osatuta daude. Beraz, urratsak egiteko moduan gaude, eta uste dugu horretan hasi zaretela, eta segitu behar dela.

[Buenas tardes, de nuevo. Antes decía que han pasado seis meses, más o menos, desde que se puso en marcha Euskarabidea. A Euskarabidea le ha tocado darle la vuelta a una política lingüística concreta que se ha aplicado durante muchos años. Para ello se necesitará tiempo, necesitan tiempo, y se necesitará tiempo. Pero nosotros también pensamos que ya es hora, y es precisamente por eso que queríamos saber qué es lo que está haciendo, con el fin de comenzar a avanzar en esa dirección. Pensamos que Euskarabidea seguramente habrá tenido ciertas dificultades al principio, quizás, para la reestructuración del departamento, para completar el equipo, pero en este momento ya se le han aprobado los estatutos, y ya tiene definidas cuáles son sus tareas. También se ha completado el Consejo del Euskera, y podemos decir que, los equipos y los departamentos, por lo menos, están compuestos. Por tanto, podemos avanzar en ese sentido, y creemos que ya lo están haciendo y que hay que seguir con ello.]

Akordio programatikoan hemeretzi konpromiso daude eta, gure ikuspegitik, behintzat, oso-oso garrantzitsua da horiek ongi kokatzea, eta denboran kokatzea, eta planifikazio egoki batean ere bai, eta zuk zerorrek esan duzun bezala, bada, ebaluatzeko moduko adierazle batzuk jarri. Baina bueno, planifikazioaren alderdia uste dugu oso garrantzitsua dela. Akordio programatikoa da, esan dezagun, Euskarabideak eskura daukan gida bat, gobernuak eskura daukan gida bat, hizkuntza-politika hori egiteko. Akordioa dago, legeak ere hor daude, oso murrizak, gure ikuspegitik behintzat; baina bueno, legeak berak ere ezartzen ditu zuk lehen irakurrik dituzun horietako batzuk, nolabaiteko eginbeharrak administrazioarentzat, eta estatutuak ere bai. Hori guztia daukazue lanerako, eta hori esanda, beste aldean daukazue, eta izango duzue, zoritxarrez, halako presio bat, eta zarata eta soinua zuek egin behar duzuen hori egin ez dezazuen. Ari naiz konkretuki indar politiko jakin batzuk euskararen inguruan egiten ari diren zarata horretaz guztiaz.

[En el acuerdo programático hay diecinueve compromisos y, desde nuestro punto de vista, por lo menos, es muy importante emplazar bien esos compromisos, emplazarlos en el tiempo, y también dentro de una planificación adecuada y, tal y como ha dicho usted, establecer unos indicadores con el fin de poder hacer una evaluación. Pero bueno, creemos que el aspecto de la planificación es muy importante. Digamos que el

acuerdo programático es una guía accesible para Euskarabidea, una guía accesible para el Gobierno, con el fin de desarrollar esa política lingüística. Ya está el acuerdo, ya están las leyes, que son muy ajustadas, por lo menos desde nuestro punto de vista, pero bueno, la misma ley también establece algunos puntos que ha leído usted antes, es decir, una serie de obligaciones para la administración, así como una serie de estatutos. Tienen todo eso para poder trabajar. Dicho eso, por otra parte, también tienen y tendrán, por desgracia es así, una presión, un ruido de fondo, para que no hagan su tarea, y me estoy refiriendo en concreto a todo el ruido que están haciendo ciertas fuerzas políticas en torno al euskera.]

Gai batzuetan ematen du jarduera eta ekintza eske dabiltzala indar politiko batzuk, eta honetan berriz ematen du, hain zuzen ere, alderantzizkoa, ematen du nahi dutela Gobernuari eta Euskarabidea egon dadila parálisi batean, hizkuntza-politikan urratsik, edo behintzat, urrats eraginkorrik eman gabe.

[En algunos asuntos parece que algunos partidos políticos están pidiendo actuaciones y acciones, y en este que nos ocupa, en cambio, parece precisamente lo contrario, parece que quieren que el Gobierno y Euskarabidea estén en una parálisis, sin dar ningún paso, o por lo menos ningún paso efectivo en la política lingüística.]

Orduan, ikusten ari gara nola euskararen inguruan behin eta berriz sua pizten ari den, suteak pizten ari diren. Askotan esango nuke oso modu artifizialean, eta hanpatuta eta erakusten benetakoa ez den errealitate bat. Baina zoritxarrez, suteak badaude, eta horren aurrean guk adierazi nahiko genioke Euskarabideari, eta Gobernuari orokorrean, ez dadila ikaratu horregatik, ez dadila beldurtu, eta egin dezala egin beharrekoa, horretarako behar duen babesa ere badaukalako. Eta esan nahiko nuke eta azpimarratu, akordio-programatiko honek, eta hizkuntza-politika berria izango den horrek badaukala Parlamentu honen gehiengoaren babesa. Hauteskunde batzuk egon ziren, indar politiko jakin batzuk badute Parlamentuaren gehiengoa, eta horiek babesten dute akordio programatiko hau. Orduan, zarata eta soinu guzti horren gainera Parlamentu honen gehiengoaren aldeotasuna badauka eta, horrekin batera, eta hori bezain garrantzitsua, gainera, gehiengo politikoaren babesa izateaz gainera, bada lehen aipatu dudan hori, herritar askok egin zuten apustu aldaketaren alde, askok, hain zuzen ere, euskararekin sentsibilitate bat bazutelako, hizkuntza-politika hori aldatu nahi dutelako, eta indar eta gogo eta babes hori ere badago. Orduan, Euskarabideak nik uste hizkuntza-politika horretan baduela gutxienez gehiengo politiko horren eta herritar horien guztien babesa eta kontuan hartzekoa dela, eta berriz ere azpimarratuko dut, zarata eta soinu eta gatazka horien guztien gainera babesa baduela.

[Estamos viendo cómo se enciende el fuego siempre en torno al tema del euskera, vemos cómo se enciende el fuego. Con frecuencia muestran, diría que, de forma artificial y vanidosa, una realidad que no es la verdadera. Pero desafortunadamente hay fuegos, y ante eso quisiéramos manifestar a Euskarabidea y al Gobierno en general que no tenga miedo por eso, que no se amilane, y que haga lo que tenga que hacer porque tiene el apoyo necesario para ello. Quisiera decir y destacar que este acuerdo programático y esta futura política lingüística tienen el apoyo de la mayoría de este Parlamento. Hubo unas elecciones, ciertas fuerzas políticas tienen la mayoría

parlamentaria, y esas fuerzas apoyan este acuerdo programático. Por tanto, más allá de todo ese ruido, tienen el apoyo de este Parlamento y, además, e igualmente importante, además de tener el apoyo de la mayoría política, lo que he dicho antes, muchos ciudadanos apostaron por el cambio, muchos de esos ciudadanos apostaron por el cambio, precisamente porque tenían una sensibilidad con respecto al euskera, porque quieren cambiar esa política lingüística, y también existe esa fuerza, esa voluntad y ese apoyo. Por tanto, creo que Euskarabidea tiene, por lo menos, el apoyo de esa mayoría política y de todos esos ciudadanos, y que hay que tenerlo en cuenta, y volveré a destacar que está más allá de todo ese ruido y de ese conflicto, tienen un respaldo.]

Esan beharko nuke, baita ere, ez duela nahita ez izan beharrik horrela, hogeita seiko horien babesa ere badauka; baina aurreiritzirik gabeko politika batek segur aski ekarri lezake beste indar horiek nahi izanez gero, hizkuntza politika horren alde ere egitea ez duelako inoren kontra egiten, baizik eta euskara, euskaldunen eta baita erdaldunon alde ere.

[Debo decir, además, que no debe ser forzosamente así, también tiene el apoyo de los veintiséis. Pero una política sin prejuicios puede dar lugar, seguramente, a que esas fuerzas se sumen a favor de esa política lingüística si lo desean, porque no va en contra de nadie, sino que va a favor del euskera, de los vascoparlantes y de los castellanoparlantes.]

Hizkuntza-politikari dagokionez, bueno, bada, zera esango nuke, bi planotan bereiziko nuke, pixka bat deskribatzeko, beti daude... [Interrupción] Agerraldi bat da, bost minutu..., hamar minutu dauzkagu. Lau minutu eta hogeitasegundo. Beraz, oraindik sei minutu dauzkat. Bestela... Bai, hamar minutu dira agerraldia da, eta lau besterik ez ditut gastatu gainera, kronometroa daukat. Hamar dira, bai, agerraldi bat da, Gobernuak agertzen ari da, orduan, bai, bueno. Jarraituko dut, ezta? Hasi orain kontatzen mesedez, zeren bestela minutu bat galdu dut honekin.

Con respecto a la política lingüística, quisiera decir..., lo dividiría en dos planos, para describirlos, siempre hay... [Interrupción] Es una comparecencia, cinco minutos..., disponemos de diez minutos. Cuatro minutos y veinte segundos. Por tanto, aún me quedan seis minutos. Si no... Sí, la comparecencia son diez minutos, y además aún no he gastado más que cuatro, tengo cronómetro. Son diez, sí, es una comparecencia, está compareciendo el Gobierno, de modo que sí. Continúo, ¿verdad? Empiece a contar ahora, por favor, porque si no he perdido un minuto con esto.

Bueno, bi plano bereizi behar direla esaten ari nintzen -barkatu, baina...-, hizkuntza-eskubideen eskubidea, alde batetik, eta hor aipatu behar da marko legal bat daukagula, horrek arautzen eta arautzen dituela hizkuntza-eskubideak; gure ustez murrizta da Euskararen Legea, beti esan dugu, errepikatu dugu, uste dugu hori aldatu behar dela. Baina bitartean hizkuntza-politika bat ere badaukagu, horrek ere eskubide horien berme hori egin beharra dauka, eta hor badago ardatz garrantzitsu bat, funtzio publikoarena, guk agerraldia eskatu genionean bereziki azpimarratu genuen, baina bueno, uste dugu horren inguruko eztabaida egin beharko dela dekretu berri bat daukagunean. Uste dut hori ere bidean datorrela, eta espekulaziorik eta

manipulaziorik egin ez dadin, hobe izango du, segur aski, hori ixten denean horren gainean eztabaida zibilizatu eta zentzuzko bat egitea, eta espero dugu hala izatea.

[Sí, decía que hay que distinguir dos planos (disculpad, ¿eh?, pero...), por una parte, el derecho de los derechos lingüísticos, y ahí cabe mencionar que tenemos un marco legal que regula los derechos lingüísticos. En nuestra opinión la Ley del Euskera es limitada, siempre lo hemos dicho, lo hemos repetido, y creemos que hay que cambiarlo. Y mientras tanto, también tenemos una política lingüística que debe velar por la garantía de esos derechos, y este aspecto contiene un eje importante, el de la función pública que destacamos de forma específica cuando solicitamos la comparecencia. Pero bueno, creemos que habrá que hacer un debate al respecto cuando tengamos un nuevo decreto, creo que eso también está de camino, y para que no haya especulaciones ni manipulaciones, seguramente nos conviene más debatir al respecto cuando esté cerrada, debatir de forma civilizada y con sentido común, y esperamos que así sea-. Pero quisiera destacar que los decretos sobre la función pública son muy importantes, porque es en ellos donde se pueden garantizar los derechos lingüísticos, y quisiera manifestar que eso es algo que se debe hacer cuanto antes. Y por otra parte está la promoción, o la labor que debe desempeñar la política lingüística en la normalización del euskera.]

Bai azpimarratu nahiko nukeela funtzio publikoaren inguruko dekretu horiek eta oso garrantzitsuak direla, horren baitan bermatu daitezkeelako hizkuntza-eskubideak eta adierazi nahiko nuke hori lehenbailehen etorri beharreko zerbait dela. Eta beste plano da sustapenarena, edo hizkuntza politikak egin behar duen, euskararen normalizazioan egin behar duen lana. Hor azpimarratu nahiko nuke badaudela gure ikuspegitik estrategikoak diren ardatz batzuk, hedabideak, euskalduntze-alfabetatzea, toki-entitateekiko lankidetzak, edo euskararen sustapena egiten duten eragileekiko lankidetzak. Hor, beharbada, hitzarmenen alderdi horrek izan ditzake arazo legalak, ez dakit seguru. Baina bai azpimarratu nahiko nukeela garrantzitsua dela gutxienez saiatzea, ez dakit deialdien bitartez edo nola den; baina sektore horri guztiari egonkortasun bat ematen, eta lankidetzak horri epe luzeko ibilbide bat ematen.

[A ese respecto quisiera destacar que desde nuestro punto de vista hay una serie de ejes estratégicos, como por ejemplo los medios de comunicación, la alfabetización en euskera, la colaboración con las entidades locales o la colaboración con respecto a los agentes que trabajan en la promoción del euskera. Cabe destacar que ese aspecto del convenio podría tener también conflictos legales, no lo sé seguro. Pero sí quisiera destacar que por lo menos es importante intentar, no sé si se hace mediante convocatorias o cómo se hace, pero a todo ese sector habría de darle una estabilidad, y a esa colaboración habría que darle una vía de largo recorrido.]

Gero plan estrategikoa ere aipatu da. Bueno, ahots ezberdinak jaso beharko dira hor. Plan sendo bat egin beharko da, gero hizkuntza politika ere sendoa izan dadin, eta hor aipatu dituzko zein diren atalak, eta faltan sumatu dut, ez dakit falta delako edo ahaztu zaigulako, halakoa; arnas guneen esparrua ere ez dago aipatuta plan estrategiko horren eskeman, zuk esan duzun horretan, gure ikuspegitik oso garrantzitsuak dira. Arnas guneak, izan ere, euskararen normalizazioan eta sustapenean oso funtzio soziolinguistiko garrantzitsua daukate. Hor

badago, nik uste, ildo espezifiko bat landu beharra, eta gogoratu nahiko nuke hor badugula eragile bat urte askotan lanean ari dena, UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, eta uste dut horiekin elkarlan bat egin behar dela, hain zuzen ere arnas guneeek duten garrantzia hori eta egin dezaketen lana optimizatzeko eta hobetzeko.

[Luego se ha mencionado también el plan estratégico. Bueno, habrá que incluir a distintas voces en ese aspecto. Habrá que concretar un plan sólido para que luego la política lingüística sea también sólida, y ha mencionado los distintos aspectos de esa política. He notado en falta, no sé si porque es una falta o porque se nos ha olvidado, el ámbito de los espacios de alto conocimiento. No se ha mencionado en el esquema de ese plan estratégico que usted ha mencionado y, desde nuestro punto de vista son muy importantes. Ciertamente, los espacios de alto conocimiento tienen una función sociolingüística importante en la normalización y promoción del euskera. Ahí, desde mi punto de vista, hay que trabajar una línea específica, y quisiera recordar que ya tenemos un agente que desempeña su labor desde hace muchos años, UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (Mancomunidad de los Municipios Vascoparlantes), y creo que habría que hacer una colaboración con ellos, especialmente por la importancia que tienen los espacios de alto conocimiento..., y para optimizar y mejorar el trabajo que pueden desempeñar.]

Komunikazioa ere aipatu nahiko nuke, hor ere aipatuta dago. Giro honetan eta hainbeste urtetan euskararen, esan dezagun, kontrako irudi bat zabaldu den horretan, uste dut hor ere tokatzen dela orain ontziari buelta ematea, eta euskararen irudia prestigiatzeko lan bat egitea. Hori egin daiteke, besteak beste, euskara erabiliz, Gobernuak euskara erabiliz, bere irudi korporatiboan, bere adierazpenetan, eta hori nolabait arautuz, uste dut hori egin behar duela, eta hori ere egin dezake euskararen inguruko sentsibilizazioa eta prestigiatzea eta bultzatzeko kanpainak eginez, edo bururatzen zaion moduan. Eta horrek ez du esan nahi, noski, erdara desprestigiatu behar denik, edo erabili behar ez denik. Erdara erabiliko dugu Gobernuan, jakina; kontua da euskara ere erabiltzea, eta gainera dagokion tamainan edo dagokion neurrian, eta berreskuratzea hainbeste urtetan Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin euskarak galdu duen irudi hori.

[Quisiera mencionar también la comunicación, a la que ya se ha referido. En este ambiente, y después de que durante tantos años se haya extendido una imagen tan, digamos, contraria al euskera, creo que en ese aspecto también toca darle la vuelta a la situación, hay que trabajar a favor del prestigio de la imagen del euskera, que se puede hacer, por ejemplo, mediante la utilización del euskera, por parte del Gobierno, en su imagen corporativa, en sus declaraciones, y regulando ese tema de alguna forma, creo que se debe hacer eso, lo cual también se puede hacer mediante la realización de campañas en aras a la sensibilización, prestigio y promoción del euskera, o como mejor sea. Y por supuesto, eso no significa que se deba desprestigiar el castellano o que no se deba utilizar. Utilizaremos el castellano en el Gobierno, por supuesto. La cuestión es que utilicemos el euskera, y además en la medida que le corresponde, y que recuperemos esa imagen que ha perdido el euskera gracias al empeño que ha puesto el Gobierno de Navarra durante tantos años.]

Denon ondarea da, komunikazio-tresna bat da, gauza gehiago ere bai, eta hori guztia gobernuak sustatu, azaldu eta erakutsi dezake. Eta bueno, bai baterako eta bai besterako, alegia, hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta hizkuntza politika, edo euskararen sustapena eta normalizazioa bilatzeko, hizkuntza-politika bat behar da, eta horrek behar ditu ezaugarri batzuk. Gure ikuspegitik izan behar du aktiboa, izan behar du eraginkorra, eragin behar du esparru sozial ezberdinetan, hemen batzuk aipatu dira: hedabideak, euskalduntzea, toki-entitateak, sozioekonomia, arnas guneara (berriz ere azpimarratuko dut), plan estrategikoan ez dagoelako beharbada, ez dagoelako jasota. Zehar-lerroa izan behar du, alegia, hau ez da Euskarabidearen, ezin da izan Euskarabidearen hizkuntza-politika. Izan behar du Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika bere departamentu, atal eta zerbitzu guztietara hedatzen dena, eta uste dut, gainera, ikuspegia hori dela. Baina bueno, hori ere praktikan ikusi beharko da. Izan behar du, noski, hizkuntza-politika planifikatua, ebaluatzeko modukoa ere bai, epe batzuk jarri behar ditu; izan beharko du, batzuetan, normatiboa, alegia, hizkuntza-politika batek arauak eta lege-xedapenak onartu beharko ditu, edo legeak, eta hor arautuko da euskararen erabilera, esan dezagun, edo ezagutza, beharbada; eta beste batzuetan izan beharko du sustatzailea, arauaz gainera edo araurik gabe euskararen erabilera ezagutzea eta horren inguruko motibazioa ere bultzatuko duena herritarren artean.

[Es el patrimonio de todos, es una herramienta de comunicación, además de otras cosas más, y el Gobierno puede promover, mostrar y enseñar todo eso. Y bueno, tanto para lo uno como para lo otro, es decir, para poder garantizar los derechos lingüísticos y para buscar la promoción y normalización de una política lingüística o del euskera, se necesita una política lingüística que debe contener ciertas características y que desde nuestro punto de vista debe ser activo, debe ser eficaz, debe influir en diversos ámbitos sociales, que ya se han mencionado aquí: los medios de comunicación, la euskaldunización, el ámbito socioeconómico, la cuestión de los espacios de alto conocimiento -lo vuelvo a repetir porque quizás no se ha recogido en el plan estratégico-. Debe ser una tarea transversal, es decir, esto no es la política lingüística de Euskarabidea, no puede serlo. Debe ser la política lingüística del Gobierno de Navarra, que se extiende a todos sus departamentos, secciones y servicios, y creo, además, que ese es el enfoque que hay que darle. Pero bueno, eso también habrá que verlo en la práctica. Ciertamente, debe ser una política lingüística planificada, como para que pueda ser evaluada, debe establecer unos plazos, algunas veces debe ser normativa, es decir, una política lingüística apruebe normas y disposiciones de ley o leyes, donde se regulará la utilización del euskera o, digamos, su conocimiento; y otras ocasiones deberá ser promotor, para que además de la norma o sin ella se promueva el conocimiento y la motivación respecto al euskera entre los ciudadanos.]

Noski, hizkuntza-politikak ere izan beharko du diruz hornitua, dagozkion aurrekontuetan izan beharko ditu dagozkion partida guztiak. Orduan hori da guk hizkuntza-politikaz daukagun ikuspegia. Egingo nuke galdera zehatz bat, hau da, 2016ko erroldan berriz egingo al da datu soziolinguistikoen azterketa? Mapa soziolinguistikoa egina daukagu oso lagin txikien inguruan, eta oso galdera zehatza da, jakin nahiko nuke ea aurtengo neurketa hori edo errolda hori modu berean egingo den hain lagin txikiekin.

[Y, por supuesto, una política lingüística también deberá ser dotada de recursos económicos, deberá tener todas las partidas correspondientes en los presupuestos correspondientes. Por tanto, ese es nuestro punto de vista con respecto a la política lingüística. Quisiera hacer una pregunta concreta, es decir, el censo de 2016 se volverá a hacer con los datos sociolingüísticos anteriores, pero el mapa sociolingüístico que tenemos está hecho con muy pocas muestras, y mi pregunta es muy concreta: quisiera saber si la medición o el censo se realizarán de la misma forma con tan pocas muestras.]

Baina bukatzeko, eta borobiltzeko, berriz oroitarazi nahiko nuke horixe: hizkuntza-politikak konfiantzaz egin behar dituela Gobernuak, Euskarabideak, zarataren eta soinuaren gainetik aurrera egin behar duela, eta horretarako badaukala gehiengo politikoaren eta instituzionalaren babesa, baita honen esperoan egon diren herritar askoren babesa ere. Eskerrik asko.

[Pero para finalizar y resumir, me gustaría recordar de nuevo lo siguiente, que el Gobierno, Euskarabidea, debe hacer las políticas lingüísticas con confianza, más allá del ruido que haya alrededor, y que para eso ya tiene el apoyo de la mayoría política e institucional, además del apoyo de muchos ciudadanos que han estado esperando a esto. Gracias.]

SRA. PRESIDENTA (Sra. Sáez Barrao): Bueno, sentitzen dut, benetan, baina uste nuen *only* bost minutu.

Bueno, les recuerdo que tiene todo el mundo dispone de diez minutos. Bueno ahora es el turno del portavoz de UPN, ¿Iñaki? Iñaki Iriarte un momentito antes de que empiece, yo me tengo que ausentar un momento y va a ocupar mi lugar el vicepresidente, ¿vale?

SR. IRIARTE LÓPEZ (4): Arratsalde on, zuzendari jauna, eta bere ekipoko gainerako kideak. Eskertu nahi dizuet zuen azalpenak. Dakizuenetz, 1986an indarrean sartu zen Euskararen Legeak Nafarroako lurraldea zatikatzen zuen hiru eremutan: eremu euskalduna, mistoa eta ez euskalduna. Neurria arrunt kritikatu izan zen bere garaian, talde euskaltzaleetatik, erranez euskararen kontra zihoala. Baina, distantziatik ikusita, erratea dago aski eskuzabala zela euskararekin, eta horra, eremu euskaldunean sartzen zituen Abaurrepea, Erro, Esteribar edota Lantz bezalako herriak, non euskaldunen portzentaje arrunt tipia zen eta non gehiengoak ziren erdaldunak. Eta beste horrenbeste erran daiteke eremu mistoaz. Sartzen ziren Sarriés, edota ez dakit, Bezabako herriak, non euskaldunak arrunt gutxi ziren. 1986az geroztik, errealitate soziolinguistikoa aski aldatu da, eta bilakaera baliobikoa izan da. Alde batetik, itxuraz, gauzak onak joan zaizkio euskarari, euskaldunen kopurua igo da, ez sobera, baina gutxienez gelditu da hizkuntzaren gibel egiteko joera. Oro har euskaldunen portzentaje pasatu da Nafarroan bederatzi edo hamar batetik hamabi edo hamahiru batera; halaber gutxiengo euskaldun berriak agertu dira, aspaldiko partez erdaldun hutsak ziren herrietan. Horri dagokionez ezaguna da hamarkada honetan zehar edo hauetan zehar, hobeki erran, nafar gizartearen zati handi batek euskara berreskuratzeke konpromisoa hartu duela, eta populazioaren zati honek euskaraz sentitzen du, oso sakonetik, eta horra, lehentasuna du bere ezagutza zabaltzeko. Ukaezina da honi esker euskarak prestigioa irabazi duela eta hori positiboa da. Datu negatiboen artean, agian berreskurapen hori, hein batean, ispilukeria da, horra, hiztunen

euskara-maila txarragoa da, zonalde euskaldunetan etxe gutxiagotan erabiltzen da hizkuntza nagusi gisa. Gehiagok ikasten dute eskolan, bai, baina gero, eskolatik ateratzen direnean gutxi erabiltzen dute, eta horra, badoaz ahazten. Lehenbiziko aldiz hizkuntzaren historian euskaldun berriak eta etxean ikasi ez duten euskaldunak edo hiztunak euskaldun zaharrak bezainbat dira. Euskalkiak euskararen, euskara batuaren aurka ez doazenak, ahuldu dira, eta erran moduan, hizkuntzak prestigioa irabazi du, bai, baina bere hiperpolitizazioaren kariaz, populazioaren parte batek ez dakit ezin ikusia hartu dion, baina bai mesfidantza, eta hori erreala da.

[Buenas tardes, señor director, y resto de miembros del equipo. Quisiera agradecerles sus explicaciones. Como saben, la Ley del Euskera que entró en vigor en 1986 dividía el territorio en tres zonas: la zona vasco parlante, la mixta y la no vasco parlante. La medida fue muy criticada en su época por parte de los grupos vascófilos, que decían que iba contra el euskera. Pero vista desde la distancia, cabe decir que fue lo suficientemente generosa con el euskera, ya que incluía en la zona vasco parlante municipios como Aburrepea, Erro, Esteribar o Lantz, donde el porcentaje de vascoparlantes era muy reducido, y donde la mayoría eran castellanoparlantes. Y se puede decir otro tanto de la zona mixta. Se incluyeron municipios como Sarriés, o, no sé, Bezaba, donde los vascoparlantes era muy pocos. Desde 1986 la realidad sociolingüística ha cambiado mucho, y la evolución ha sido bivalente. Por una parte, al parecer, le han ido bien las cosas al euskera, ha aumentado la cifra de vascoparlantes, no demasiado, pero por lo menos se ha detenido la tendencia de la lengua de ir en retroceso. En general, el porcentaje de vascoparlantes en Navarra ha pasado de ser de un nueve o diez a un doce o trece; además, han aparecido nuevos hablantes del euskera en municipios donde desde hace mucho eran únicamente castellanoparlantes. Con respecto a eso, es conocido que durante esta década o, mejor dicho, durante estas décadas, una gran parte de la sociedad navarra ha tomado el compromiso de recuperar el euskera, y este sector de la población siente en euskera, de forma muy profunda, y así, quiere darle prioridad a la difusión del conocimiento del euskera. Es innegable que gracias a esto el euskera ha ganado en prestigio, y eso es positivo. Entre los datos negativos, quizás esa recuperación, en cierta medida es un espejismo, ya que el nivel del euskera de los hablantes es peor, y en las zonas vascoparlantes el euskera se utiliza en menos hogares como lengua principal. Son más los que lo aprenden en la escuela, sí, pero luego, cuando salen de la escuela lo utilizan poco, y así, lo van olvidando. Por primera vez en la historia del euskera los nuevos hablantes del euskera y los hablantes que no lo han aprendido en casa son tantos como los antiguos hablantes del euskera. Los dialectos, que no van contra el euskera, contra el euskera unificado, se han debilitado, y como he dicho, la lengua ha ganado prestigio, sí, pero a causa de su hiperpolitización una parte de la población no sé si le ha cogido manía, pero sí desconfianza, y eso es real.]

Ezaguna denez, joan den urtean, otsailean, preseski Parlamentu honek onartu zuen, nire talde politikoaren irizpidearen kontra, lege-aldaketa bat, zeinari esker ahalbidetzen zen D eredua eskaintzea zona ez euskalduneko herrietan. Legearen aldaketaren kontra boza egin izanak ez du erran nahi, inolaz ere, guretzat, gutxiengo euskaldunaren hizkuntza-eskubideak inportanteak ez direnik. Haatik, jotzen ditugu hizkuntza politikek egin behar dutena existitzen den errealitatea errekonozitzea dela, eta ez berriz, errealitate linguistikoa alderaztea. Gauzak

honela, uste dugu ezin dela bistatik galdu Nafarroako errealitate linguistikoa, eta honek erakusten diguna funtsean hiru gauza dira: hasteko, euskaldunak gutxiengo bat gara, hau ez da iraingarria, bada deskribapen estatistiko bat; bigarren lekuan, euskaldungoaren barnean, euskaldun berriek eta hezkuntza-sisteman ikasi duten euskaldunek, irudikatzen dute euskaldungoaren erdiaren erdia edo, eremu mistoan eta eremu ez euskaldunean, errateko, ehuneko 60 baino gehiago dira; hiztun berri gehienen ama-hizkuntza gaztelania da, eta horrek eragin itzela du mintzatzen den euskararen mailan. Horra, eremu mistoko euskaldunen ehuneko 70k onartzen du hobeto egiten duela ele erdaraz, eta ehuneko 5,6 batek berriz dio, euskaraz hobeki aritzen dela. Datuak gordinagoak dira so egiten zaionean idazmenaren eta irakurmenaren trebetasunari, ez naiz datu horietan sartuko. Egia da euskararekiko kezka eta interesa inportanteak direla eta aintzat hartu behar direla. Baina ezin da ahantzi, eta hori litzateke ere hirugarren puntua, gehiengo zabal batek ez duela euskara ezagutzen, eta ez duela euskararen beharrik, batik bat eremu mistoan eta ez euskaldunean. Gehiengo horrek interes gehiago dauka beste hizkuntzekiko, eta errespetatu behar da, errespetatu behar da erabaki hori. Aitzinean dugun erronka da bateragarri bihurtzea gutxiengoaren eta gehiengoaren eskubideak, eta garbi gera dakigula eskubide horiek asetzeko ez dela aski erdaraz atendituak izatea, eta, izan ere, erronka hori gainditzeko eztabaida zibilizatu baten beharra daukagu; ez inposaketarik, beraz.

[Como es conocido, el año pasado, en febrero, este Parlamento aprobó precisamente una modificación de ley contra el criterio de mi grupo político, gracias a la cual se permitía ofrecer el modelo D en los municipios de zonas no vascoarlanges. El hecho de votar en contra de la modificación de la ley no significa, de ninguna forma, que para nosotros no sean importantes los derechos lingüísticos de la minoría vascoarlange. Sin embargo, consideramos que las políticas lingüísticas lo que deben hacer es reconocer la realidad existente, y no hacer cambiar la realidad lingüística. Así, creemos que no se puede perder de vista la realidad lingüística de Navarra, y lo que nos viene a mostrar esto, principalmente, son tres cuestiones: para empezar, los vascoarlanges somos una minoría, esto no es ofensivo, es solo una descripción estadística; en segundo lugar, dentro de los vascoarlanges los nuevos hablantes y aquellos vascoarlanges que han aprendido en el sistema educativo representan a la mitad de la mitad de los hablantes; en la zona mixta y en la zona no vascoarlange, por ejemplo, son más del 60 por ciento; la lengua materna de la mayoría de los hablantes es el castellano, y eso influye enormemente en el nivel de euskera que hablan. Así, el 70 por ciento de los vascoarlanges de la zona mixta admite que habla mejor en castellano, y el 5,6 por ciento dice que habla mejor en euskera. Los datos son más severos cuando se observan la habilidad de escribir y de hablar, pero no voy a entrar en ellos. Es cierto que la preocupación con respecto al euskera es importante y hay que tenerla en cuenta. Pero no hay que olvidar, y ese sería el tercer punto, que una gran mayoría no conoce el euskera, y que no necesita el euskera, especialmente en la zona mixta y en la zona no vascoarlange. Esa mayoría tiene un mayor interés con respecto a otras lenguas, y hay que respetarlas, hay que respetar esa decisión. El reto al que nos enfrentamos es el de compatibilizar los derechos de la minoría y de la mayoría, y tenemos que tener claro que para satisfacer esos derechos no es suficiente con ser atentos en castellano y, por

tanto, necesitamos un debate civilizado para superar ese reto; de modo que imposiciones, no.]

Gobernuari eusten dioten lau indarrek sinatutako akordio programatikoa afera hauetaz guztiez mintzatzen da, zenbat eta hemeretzi puntutan. Emandakotzat jotzen dugu Euskarabidetik saiatuko dela egitarau hori garatzen. Gu bereziki kezkatzen gaituzte lau auzik. Hasteko, langile-plantillen barnean euskaldunen kopurua eta hizkuntzarekiko jarrera ezagutzeko berriki egindako inkestak. Berez, eta egoera normal batean inkesta hauek ez lukete nihor kezkatu beharko, baina ezin duzue ahantzi lur honetan existitu den eta oraindik ere existitzen den beldur egoera auzi politiko batzuez mintzatzeko. Euskararen kontra egotea krimenez hartua izan da, eta horregatik ulertu behar da populazioaren sektore garrantzitsu batean oraindik erreparoa egotea euskararen gaineko galderei erantzuteko edota jendea linguistikoki sailkatzeko. Hori existitzen da. Bigarren lekuan, gutxiengo euskaldunaren eskubide linguistikoak bermatzearen izenean administrazioa euskalduntzeari ekiteko asmoa dago, eta horren arriskua da Nafarroaren gehiengo zabala baztertzea, eta administrazioa D eredutik ateratako gutxiengoarekin betetzea. Arrisku hori, gutxienez, gure irudikoz, existitzen da. Hirugarren lekuan, mintzatzen da euskara erabiltzen duten komunikabideentzako diru-laguntzak berretzeaz, ugaritzeaz. Uste dugu komunikabide batzuk dopatzea ez dela ona izanen euskararentzat, eta ez duela, inolaz ere, salbatuko bere egoera. Ez diogu uko egiten diru-laguntza horiek existitzeari, jotzen dugu tentuz neurri hori har daitekeela. Baina bereziki kezagarria deritzogu abian paratzeari akordioaren hamahirugarren puntua, hitzez hitz erraten duena: «Los medios de comunicación que reciban financiación pública, deberán emitir un porcentaje de su programación en euskera, en los ratios fijados en las respectivas convocatorias». «Deberán», derrigorrezko zerbait. Eta guztiz okertzat jotzen dugu derrigor hori inposatzea. Justutzat joko al genuke diru-laguntza publikoak jasotzeko euskal komunikabideek programazioaren zati bat erdaraz eman behar edo emititu behar izatea? Bada, ez, hizkuntza batentzat balio ez duenak balio ez dezala bestearentzat.

[El acuerdo programático firmado por los cuatro partidos que apoyan al gobierno habla de todas estas cuestiones, en diecinueve puntos. Consideramos por anunciado que Euskarabidea trabajará por desarrollar ese programa. A nosotros nos preocupan especialmente cuatro cuestiones. En primer lugar, las encuestas realizadas recientemente con el fin de conocer la cantidad de vasco parlantes dentro de la plantilla de empleados y su actitud con respecto a la lengua. Efectivamente, en una situación normal a nadie le preocuparía este tipo de encuestas, pero no deben olvidar el miedo que ha existido y que aún existe para hablar sobre ciertas cuestiones políticas. Se ha considerado un crimen estar en contra del euskera y, por ello, se debe entender que en un sector bastante importante de la población aun haya reparo para responder a preguntas sobre el euskera o para clasificar a la gente lingüísticamente. Eso existe. En segundo lugar, se quiere euskaldunizar la administración con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de una minoría vasco parlante, lo cual conlleva el riesgo de la marginación de una gran mayoría de Navarra, y de llenar la administración con los conocimientos mínimos adquiridos en el modelo D. En nuestra opinión, por lo menos, existe ese riesgo. En tercer lugar, se habla de aumentar las ayudas para los medios de comunicación que utilicen el euskera. Creemos que el hecho de dopar a diversos medios de comunicación no es bueno para el euskera, y que no salvará, de ninguna manera, su situación. No renunciamos a la existencia de esas ayudas, pero consideramos que esa medida hay que tomarla con cuidado. Pero nos parece

especialmente preocupante poner en marcha el punto trece del acuerdo, que dice textualmente lo siguiente: «Los medios de comunicación que reciban financiación pública, deberán emitir un porcentaje de su programación en euskera, en los ratios fijados en las respectivas convocatorias». «Deberán», como algo obligatorio. Y nos parece totalmente un error imponer esa obligación. ¿Nos parecería justo que con el fin de recibir ayudas públicas los medios de comunicación en euskera tuvieran que retransmitir o emitir una parte de su programación en euskera? Pues no, lo que no vale para un idioma que no lo valga tampoco para el otro.]

Azken puntua litzateke akordioan aipatzen den beste subjektu bat, euskara balioestea, prestigiatzea, alegia. Guk geuk ere uste dugu beharrezkoa dela euskaldunon hizkuntza balioestea. Baina konbentzituta gaude horretarako ezinbertzekoa dela erradikalki despolitizatzea, hasteko. Euskara erabilia izan ez dadila ez dakit zer eraikuntza nazionalerako, edota ez dakit zer zauri identitario ixteko. Eta bigarrenez, nahi baldin badugu euskara errespetatua izatea, jo ez dezagun soberazko diskriminazio positibo batera. Diskriminazioa ez da nehoiz positiboki geratzen bazterturik geratu direnez. Zuzendari jaunak iradoki gisan, gizartearen aniztasuna aintzat hartu behar da.

[El último punto trata sobre otro tema que se menciona en el acuerdo, sobre valorar y prestigiar al euskera. Nosotros también pensamos que es necesario valorar la lengua de los vascos. Pero estamos convencidos de que para eso es fundamental despolitizarlo, eso para empezar. Que el euskera no sea utilizado para no sé qué construcción nacional, o para cerrar no sé qué heridas. Y, en segundo lugar, si queremos que se respete el euskera no hagamos una discriminación positiva excesiva. La discriminación no resulta nunca positiva con los que quedan apartados. Tal y como ha dicho el señor director, se debe tener en cuenta la pluralidad de la población.]

Bukatzera noa, akordio programatikoan baliogarriztat jotzen dugun puntua hamazazpigarrena da. Bertan erraten da: «Analizar la función estratégica de los espacios de alto conocimiento y uso generalizado del euskera, y estudiar la posibilidad de aplicar políticas específicas en estas zonas». Izan ere, euskararen biziraupenerako giltza dentsitate handiko zonetan suspertzea da, beste era batez errana, zonifikazioa. Horra erraten da arnas gunea, bueno zonifikazioa eta arnas gunek oso erlazionatuta daude, eta ez dute erran nahi, inolaz ere, kontrakoaz konbentzitu bazarete ere, inor diskriminatzea edota indio erreserbak sortzea. Ez da hori ideia. Gauza positiboak ere aurkitzen ditugu, zuzendari jaunaren hitzetan: euskalkien babes, eusko hizkuntzarekiko akordioa edo Euskaltzaindiarekin puntu anitzetan (bukatzera noa) hautematen dugu jarraipen bat aurreko politikekin. Besterik ez. Eskertzen dizkizuet zuen azalpenak. Nire asmoa ez da inolaz ere zuei iradokitzea nola kudeatu zuzentzen duzuen Euskarabidea; baina bai nire taldearen eta atzetik ditugun boto-emaielen ikuspuntuak eta kezkek azaltzea. Esker anitz.

[Finalizo. El punto que nos parece práctico en el acuerdo programático es el diecisiete, donde se dice: «Analizar la función estratégica de los espacios de alto conocimiento y uso generalizado del euskera, y estudiar la posibilidad de aplicar políticas específicas en estas zonas». Efectivamente, la clave para la pervivencia del euskera es su recuperación en las zonas de gran densidad, dicho de otra forma, la zonificación. Ahí se habla de los espacios de alto conocimiento, bueno, la zonificación y los espacios de alto

conocimiento están muy relacionados, y no significan de ninguna forma, aunque se hayan convencido de lo contrario, discriminar a nadie o crear reservas de indios. No es esa la idea. También encontramos cosas positivas en palabras del director: la protección de los dialectos, el acuerdo con respecto a la legua vasca o con Euskaltzaindia, nos ha parecido que en muchos puntos (finalizo) hay un seguimiento de las políticas anteriores. Nada más. Les agradezco sus explicaciones. Mi intención no es de ninguna forma sugerirles cómo gestionar su dirección en Euskarabidea, pero sí quiero mostrarles los puntos de vista y las preocupaciones de mi grupo y de los votantes que nos siguen. Muchas gracias.]

SR. VICEPRESIDENTE (Sr. Leuza García): Muchas gracias señor Iriarte. Continuamos con el grupo parlamentario Geroa Bai con su portavoz la señora Solana.

SRA. SOLANA ARANA (5): Eskerrik asko, presidente jauna. Eskerrik asko Aregi jauna, zure lankideei ere bai eskerrak egin duzuen ahalegina, egin duzuen lanagatik, hilabeteotan guztiotan, eta animo, eta indarra eta jakina, babesa ere bai aitzinera duzuen lar mardula aurrera eramateko.

[Gracias, señor presidente. Gracias señor Aregi, gracias a sus compañeros también por el esfuerzo que han realizado durante todos estos meses, y ánimo, y fuerza, por supuesto, y nuestro apoyo para poder llevar adelante el gran trabajo que les espera.]

Ez nuen pentsatzen ahal, baina pozik nago gaurkoan hemen gaiaz eztabaidatu ahal izateaz. Diot, nahiko estresatuak baikabiltza azken boladan, euskararen inguruko gaiak direla eta ez direla, zeren azken batez euskara ekartzen da beti elkarrizketaren eta eztabaidaren erdigunera eta, seguruenez, kasu gehienetan euskararekin zerikusi gutxi dauka gertatzen ari dena. Hortaz, bueno, eztabaidatzea hemen eta batzuen eta besteen iritziak ezagutzea inportantea da guretzako, ezinbestekoa eta behar-beharrezkoa hitz egitea kontu honen inguruan. Izan ere, hau baita gure arazoetako bat eta ezin du horrela izaten jarraitu. Ez, behintzat, Geroa Baiaren aburuz. Baina, agerikoa denez, nik gaur ikusi izan dudana izan da Euskarabideatik eta Aregi jaunaren partetik egin dela azalpen eta esposizio nahiko zehaztu bat, eta garbia eta txukuna, eta despolitizatua erabat, eta jada, gure partetik hasten denean hitza hartzen, edo hasten garenean hitza hartzen politika nahasten da nahitaez.

[Pues, no lo creía, pero estoy contenta de poder debatir hoy aquí sobre este tema. Lo digo porque últimamente estamos bastante estresados con respecto a los temas sobre el euskera porque, al fin y al cabo, se trae el euskera siempre al núcleo del debate y, seguramente, la mayor parte de las veces, lo que ocurre tiene poco que ver con el euskera. Por tanto, debatir aquí y conocer las opiniones de unos y otros es importante para nosotros, es fundamental y absolutamente necesario hablar sobre estas cuestiones. Efectivamente, este es uno de nuestros problemas y no puede seguir siendo así. Por lo menos no lo debe ser en opinión de Geroa Bai. Pero como es evidente, lo que yo hoy he podido ver es que por parte de Euskarabidea y el señor Aregi se ha hecho una explicación y una exposición bastante clara, limpia y ordenada, totalmente despolitizada, y ya cuando nosotros empezamos a tomar la palabra la cuestión empieza a politizarse, inevitablemente.]

